

Errapel Bereziartu oroituaz

Nere lagun miñ Errapelentzat zerbait nai nuben idatzi aurtengo Oarso aldizkarian, berari goratarre egiñaz eta bere bizitzaren kondairaren zati batzuek azalduaz.

Au egiten asi naizenean, oartu naiz, joan zan urteko gabon kanta sariketan egin zitzaion omenaldian, Joxan Arbelaizek Ereintzaren izenean egin zuen azalpenean, Errepelen berriak eman zituela. Eta ari buruz azal dutako aipamen bereziak ikusita, nik egingo nituenak baiño askoz obeak izanik, berauek oso osorik ematea bururatu zait, Errapelek izandu zuan nortasuna azaltzeko. Onela zion egun orretako idaztiak:

"...Ereintza Elkarteak gaurko egunez Rafael Bereziarturi eskeini nahi dion omenaldi honetan parte hartzen duzuen beste guztiok oroitaraziko diguzue ,gizonak egin zuena soinuaz eta kantuz eta modu askotako musika zerbitzuz.

Haren iharduna ekarriko diguzue begi eta belarrietara eta bihotzera. Ederki!

Baina nik pertsona berpiztu nahi nizuke eta begien aurrean jarri, denok maite eta eskertu dezagun. Hori da egin nahi nukeena eta egin behar nukeena .

Konparazio batera, nola izan zela esango nuke nik gure gizonaren bizitza eta izaera? Eta zuhaitz batekin konparatuko bagenu?

Pentsa ezazue sagar-arbol eder bat herriaren erdian. Han dago beti, uda eta negu, gau eta egun. Lagun dugu denok. Haurrak jolasean dabilzkie bueltan. Adinekoak eserita daude itzalean. Nornahi sagar-ale baten bila datorkio. Eta berak ez dio inori bererik ukatzen. Denentzat emale da, denentzat zerbitzu da, dena denena da.

Ez al daiteke sagar-arbola horrekin konpara gure Rafael?

Ikus dezagun bere historia eta bere iharduna gure artean. Zer da gure artean, Ereintza elkartearen eta beretaz kanpo, hura gabe izan denik eta egin denik?

Eliza testigu da Rafaellek urteetan eskeinitako laguntzaz, mezetan herri-kantua zuzentzen eta



Omenaldiaren eguna. Aurrean Rafael Bereziarturen semea, Carlos, eta EREINTZAren lehendakaria, José Ignacio Usabiaga.

baita organoz laguntzen ere. Hil baino hilabete lehenago ere, han ari zitzaigun oraindik, zerbitzu lan horretan, Parroki nagusiko Amezua organoa joaz.

Zer ez dezake Ereintza Elkartek esan, Rafaelek azaldu dion leihaltasunaz eta eskeini dion dohai-neko lanaz?

Elkartearen haseratik, eta gaixotasunak galerazi zion arte, hura izan dugu soinujolea Olentzerotan eta Urte Zahar eta Santa Ageda kopletarako, errelebo bikaina utzi zigularik. Eta horretan ere, zuhaitzaren antzera irauin zuen. Berrogei urtetan beti han egon zen, baita bere belaunaldikoek ekintza horietan parte hartzeari utzi ziotenean ere.

Bere ekarpenaz, gure herriko folklorea aberastu zuen, Adunatik eta aitarengandik ikasitako "Izar Eder Bat" dugu "Gabon Abesti zoragarria gure artera ekarriaz. Horretarako, abesti horren partitura eta armonizazioa idatzi behar izan zituela, D. Jesus Kerejetaren laguntzarekin.

Ez dezala, ezagutu etzuen inork pentsa, bere dohai artistikoak nolana hikoak zirenik. Gipuzkoako soinujoleen txapelketa irabazi zuen Rafaelek, 27 urtekin. Eta "Goxo" bostkotearekin aritu zenean, bere jakituria eta abileziaren froga nabarmenak eman zituen.

Hori eta honelakoa izan genuen gure gizona. Ongi esan al dut GURE GIZONA? Ez al dit norbaitek esango etzela erreteriarra? Arrazoi luke.

Izan ere, Bergarako Angiozar auzoan jaio baitzen, 1.923. urteko Otsailaren hamazazpian. Umetan Adunara bizitzera joan zen, aita bertako organista izendatu baitzuten, eta bertan eman zituen gazte garaiko urteak.

1.953. urteko gabonak baino lehentxiago iritsi zen Erreteriarra Etxeberrietako gure erlojerua, eta hurrengo urteko maiatzaren Sean Pepita Urkola adunarrarekin ezkondu zen. Erreteriaran finkatu zuten bere bizilekua. Hemen familia osatu eta hemen semea izan zuten.

Egia da, beraz, ez genuela gure herriko semea. Baina ez al da egiago, Erreteriaran erreteriarrik izan bada, Rafael Bereziartu izan dela?

Gure bizitza, hura izan ez balitz, gaur den bezain aberatsa izango al genuen? Ez al ditu edertu gure sentimenduak eta aberastu gure izaera?

Zuek eta nik erreteriar guztizko deklaratu dugu gaur, gure oroimenen beti irauin dezan eta gure bihotzean esker ona jaso dezan..."

Eta auek izandu ziran Ereintzak, Joxanen idatziz, adierazi zituan doai eta xeetasunak. Argi asko azalduaz, nolakoa izandu zen Errapel bere ekintza guztietan.

Baiña berarekin ain lagun miña izanik eta ainbat alditan festa giroan ibiliz, badaikit bazituala Errepelek beste naitasun bereziak, eta auetako bat, bertso zar zale amorratua izatea. Auen artean, P.M. Otaño, Xenpelar, eta Bilintx zituen bereziki gogokoak, eta berauen bertsoak askotan abestu al izan genituen bere soiñuaren laguntzarekin. Baiña bat oso gogoan daukat eta beñere ez zaidala aztuko iruditzen zait.

Pedro Mari Otañoren "GU eta GUK" ogeitabi bertsoetako 8garrenak onela dio, eta berari entzun nion lenengo aldiz, bai eta ere bertan erabiltzen zuan soiñua.

*Ez da Euskera beñi izkuntza,
maitagarriak munduban.*

*Jakina dago beabru zarrak,
nola ikasi etzuban.*

*Ain da santuba, ezin mintzatu
lezake infernuban.*

*Orrengatikan, denak euskeraz
kantatzen dute zeruban.*

Beste doaitasun berezi bat ere ba zeukan: ez zan beñere kanta zaillik beretzat eta bereala lortzen zuan berari zetorkion moldaera, eta abeslariarentzat bere soiñuarekin laguntzaille berdiñik gabekoa izandu zan.

Zenbat aldiz abestu ote genituan Lapurdi aldeko "Sor Lekua" "Arroxa xuri baten azpian" eta beste ainbat, ain orogarri genduan Urrietako aldeko sagardotegian, Billabona-Zizurkil lagunekin urtero egiten genituen bailaretan.

Eleizako koruan ere, tenorien bigarren sokakoak giñaden, bere eztarriak lagundu zion bitartean, eta zer segurantzia izaten genduen bere aldamenian izaten giñadenak. Gure lagun arteko pasadizuak kontatzeko liburu aundi bat bearke nuke, eta alaz eta gutiz ere, gutxi izango, berauek ondo azaltzeko.

Azkenik esan, Errapel beti euskarazale eta aber-tzale tinkoa izandu zala, umoretsua eta pakezalea.

Bera il zan goizean, bere seme Karlosek dei egin zidan Onkolojikitik, berri txarra emanez, joan zen urteko Ekainaren ogeitabian. Eta bertatik beste berririk ez genduen espero, bere gaitzak ez bai zuben obetzeko itxaropenik. Kristau zintzo bezala eraman zuban bere gaixotasuna osogune osoarekin.

Bere eriotzaren berriarekin naigabe andi bat jasan izan bear nuben, ain lagun miñak izan bai giñaden Erreteriaran bizi izandu zan denbora guztian. Eta itxaropentsu aurkitzen naiz, Jainko onak bere albuak edukiko duela, eskertua mundu onetan egin zituan lan guztiaren ordaiñez.

Agur Errapel, egun aundirarte.

ERRAPELEN OMENEZ

Gabon abestien sariketa
gaur emen dugu ospatu.
Ta bide batez oroitzen degu
Errapel Bereziartu
Ereintza eta errien alde
lanean ziñan aditu
Orrengaitikan ekintza aiek
nai dizkizugu eskertu.

Ekintza aiek izandu ziran
Euskaldun sendo batenak
Berdin kalean edo elizan
ain bat eskeñitakoak
Soiñua berriz prest zegon beti
laguntzeko abestiak
Orain zeruan zure laguntza
izango dute-aingeruak.

Agur Errapel Ereintzatarrak
ez zaitugu ez aztuko
Zuk egindako lan eder aiek
gogoan ditugu eukiko
Mundu ontatik joan ziñan baña
ez ziñan jun betirako
Jaunak nai ba du EGUN AUNDIAN
berriz gera elkartuko.

Gabon kanta sariketan Ereintza Elkarteak eskeiñi zion omenaldi errikoiean nere lagun miñ Errapeli abes-
tutako bertsoak.



1992ko Azaroaren 22an Aiako lagunak eskeiñi zioten omenaldiko argazkia. Erreneriako Eleiz koruko partaideak ere bertan izandu giñan.